


Astekaria

# BARREN

elgoi



Mugerza Memoriala:  
Urrezko eztaiak

OJANGUREN

**UBI**  
**ZP** **LAST S.L.**  
Zubillaga Industrialdea,  
Tfnoa: 71 61 89  
20560 OÑATI

*Hasierako promozio berezia*

Orain zure aukeran superleiho  
isolatzaileak:

PVC- VECA Aleman sistema  
RPT, INESPAL (aluminioa)

## PREMIAZKO TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulatorioa: Larrialdiak .....	741155
Txanda hartzeko.....	743354
Alkoholiko Anonimoak .....	742950
D.Y.A (anbulantzia).....	464622
Gurutze Gorria .....	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua (Anbulatorioa) .....	743936
Odol Emaileen elkarte.....	741190

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .....	740442
PESA (Eibar) .....	112131
Taxi Geltokia .....	740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua .....	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua.....	742158
Ongizate zerbitzua .....	743736
Udaletxea .....	741050
Udaltzaingoa .....	741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....	740142
IMI .....	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC) .....	743088
Liburutegia.....	743525
Musika Eskola.....	742145
Polikiroldegia.....	741361
Postetxea .....	741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza .....	740296
Zaharren Biltokia .....	740526

### 3 LAU HANKATAN

"Gazte, zure eskubidea da: lan mundurako prestaketa zor zaizu."  
Joxin Arregi.

### 6 ERREPORTAIA: MINTXETA KIROLARIEN ESOERANTZA

Mintxetako Kirol instalazioetara, edonork izango du sarrera.

### 8 ARRAZOIAK ERDIBANA: BOTIKAK ALA SENDABELARRAK

Javier Agirrebeña:

"Hasiera batean gizakiak belarrak zituen bere gaitzen sendagai gisa, egun medikamentu izenez ezagutzen ditugu".

Jose Antonio Zuazubizkar:

"Zenbait landarek gaitasun antibirikoak eta antibiotikoak dituzte, baita gorputza bere osasunera ekartzeko indarra ere".

### 12 BERBETAN

"Kross Mugerzan egualdi ona egitea espero dot".

Jose Gurrutxaga.

### 14 KIROLA:

GAIA: HIRU ELGOIBARTAR MUGERZA MEMORIALEAN.

ELKARRIZKETA: Santi Maiztegi

"Olinpiadan korritzea baino, nahiago dot Memorial Mugerzan irabaztea".

### 16 ELKARTEETATIK BUELTRAN

BIAR-DANA: ELGOIBARKO ELKARTERIK ZAHARRENA.

### 17 KULTURA

KROSARI BURUZKO 28 ARGAZKI

## KOMIKIA





**L**AU HANKATAN



Joxin Arregi

# Gazte, zure eskubidea da: lan mundurako prestaketa zor zaizu

**E**gun gutxi barru, Lanbide eskoletako ikasle asko eta asko bere praktiketako garaian sartuko dira.

Azkeneko urte hauetan lan munduko indar-sozial ezberdinak ados agertu dira hezkuntzak eta bere barneko praktikak, batez ere, duten garrantziaz hitzegiterakoan. Ez dira egun asko, esaera borobil hau entzun dugula: "herri batek bi hondasun nagusi ditu: bere herritarren prestaketa, jakinduria eta ahalmena batetik, eta bere azpiegitura bestetik, gaur egun teknika, tresna eta kapitalak herri batetik bestera erraz mugitu daitezkeelako.

Hau dena honela izanik, azkeneko urteetan ikasleen praktiketan gertatzen ari dena ikusirik, denok kezkatzen hasi beharko genuke, gutxi batzuk kenduz, ikasle gehientzat praktikak esperientzia nahiko kaxkarrak izaten baitira.

Gaur egun lana topatzea zaila da eta asko praktikarik gabe gelditzen ari denez, beraien lan aukera guztiz

murriztua gelditzen dela nabarmena da.

Praktiketara doan gazteak, langile bati ogibidea kentzeko erabiltzen badute, ez dut uste poz handia sentituko duenik. Jakinik, gainera, gaur egunean Euskal Herriko gazteen lan eza ehuneko 48,8koa dela.

Aipatu ditugun posibilitate hauek ez dira zoritxarrez noizbehinka gertatzen direnak, normalki suertatzen direnak baizik.

Denon lana da gazte hauen prestaketa eratzea eta praktiketara eramatea. Ez da nahikoa datorren LOGSE lege berrian, praktikak ikaslearen eskubide bat izango direla esatea.

Eskubide hau orain bertan bete behar dugun zerbait da. Eta hau ez bakarrik ikasleen eskubideak defendatzearen, aipatu ditugun Herri ondasun nagusi horiek, gure herriak izan ditzan.

Berriro ere, egun gutxi barru, jakingo dugu esaten diren guztiak hitz potolo batzuk besterik diren ala ez.

- Argitaratzailea**  
Elgoibarko Izarra  
Kultur Elkartea
- Laguntzailea**  
Elgoibarko Udala
- Zuzendaritza**  
Itziar Agirregomezkorta  
Alberto Agirreazaldegia
- Hizkuntza Arduraduna**  
Anjel Ugarteburu
- Erredakzio Kontseilua**  
Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua.
- Kazetaria**  
Ainhoa Lodoso
- Maketatzailea**  
Maite Rementeria
- Publizitatearen diseinua**  
Luis Mari Zubiaurre  
Maite Rementeria
- Publizitatea**  
Amaia Leiaristi
- Kolaboratzaileak**  
Miriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Agur Miren Barandiaran, Lorea Gorostiaga, Jon Eugi, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Aitor Lodoso, German Meababasterretxea, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Lorea Perez de Albeniz, Andoni Rementeria, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta.
- Banaketa arduradunak**  
Imanol Larrañaga  
Inaxio Garmendia
- Inprimategia**  
Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)
- Tirada**  
3.000 ale

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**rambarri** **AURREZKI PLANAK**

+25 urterekin-----	5.000 pta. hilean ordainduz
60 urterekin-----	<b>39.822.553 pta. jaso.</b>
<b>ASEGURU AHOLKULARIA</b>	
35 urterekin-----	5.000 pta hilean ordainduz
60 urterekin-----	<b>12.117.805 pta. jaso.</b>

San Bartolome 15, behea. Tel: 74 30 37

**Aupa elgoiBARREN!**

Joan zan urtean erre-galatu zidaten ARGIAKO takoa edo egutegia.

Egunero egunekoa, kostata baina, ahale-gindu naiz bere atzeko aldeko ipuin edo pasadizuak irakurtzen. Azkenerako ohitu ere egin naiz eta gustora irakurri ditut.

Aurten listoia gorago jarri didazue elgoiBARRENeakook. Baina ez

noa atzera egitera, nere buruari agindu diot eta agintzen dizuet astero irakurriko dotela, hain txukun eta egoki kaleratu dituzuen lehenengo bi aleak.

Aurrera eta izan dagien luzerako!

Jenero ona lortu dozue eta horrelaxe jarraitu.

**G.Garate**

**OHARRA:**

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Kezka, iritzi, galdera, erreflexio... adierazteko aukera ezin hobea daukazue bertan.

Eskutitzak idazten duenaren izena, bi abizen, telefono zenbakia eta N.A.N.a izan beharko dute. Argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatzen badu, inisialak soilik agertuko dira.

Kritika eta gaitzespen mota guztiak onartuko badira ere, ez da tokiarik izango irainduz edo errespetu faltaz idatzitako eskutitzentzat.

**UDALTZAINGOAREN OHARRA:**

Azkaratetik Azkoitira bidea moztuta egongo da **datorren hilaren**

**25etik otsailaren 8 arte** (biak barne).

Errepidea **egun osoz** egongo da itxita. Besterik ezean proposamena Zes-tuatik joatea da.

**ZUBIAURRE**



*Autoedizioa  
eta  
Diseinu grafikoa*

Santa Klara 40-3. ☎ 74 44 44

**PUBLIZITATEA**

☎ **742384**



**24 orduz zuekin**

Arrate ☒ 212 (20.600) Eibar  
☎ 12 01 61/73 Fax 12 01 73



**D** onostiako tanborrada eleganteago bada ere, honako hauek Elgoibarren egin ziren lehendabiziko tanborradak dira. Argazki txikia lehenagokoa bada ere, argazki handia 1945ko abuztuaren 2an ateratakoa. Argazki handia gauregun Udaletxe atzeko parkea dagoen tokian aterata dago. Zeintzu diren ezin ezagutuz bazabiltza, ez burua apurtu, hauexek dira eta:

Goitik hasita eta ezkerretik eskuinera: Perez (sebillanoa), Jose Luis Ajubita, Bittor Arrieta, Carlos Arrese, Ignacio Beloki, Sabino Larrañaga, Javier Zengotita eta Pedro M<sup>o</sup> Esnaola.

Bigarren ilaran: Nemesio Ansola, Patxi Igartua, Manolo Uncilla, Jose Izagirre, Gerardo Garate, Txapillo, Jose M<sup>o</sup> Mugerza eta Imanol Gurundarena.

Kantinerak eta zuzendaria: Rakel Gurrutxaga, Maritxu Kortabarria, German Uriguen eta Lurdes Uriguen.

Umeak: Miren Beloki eta Maite Vallejo.



Argazki txiki hau berriz Elgoibarren antolatu zen lehen tanborradarena dela esan digute. Atzeko kalea guztiz itxuraldatua badago ere, San Bartolome kalea da.

## JUARISTI Aroztegia

- ETXEBIZITZETAKO ERREFORMAK
  - LEIHO ISOLATZAILIEN FABRIKAZIOA ETA INSTALAKUNTZA
- Fixo edo oszilakorrak,  
Egurrezko nahiz mistoak(Aluminio eta egurrez edo brontze eta egurrez).**

**AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE**

BULEGOA:  
Ubitarte 2 behea.  
Tel 74 13 33  
LANTEGIA:  
Santa Ana 16.  
Tel. 74 29 94



# Mintxeta, kirolarien esperantza

Zenbaitek esango du bazela Elgoibarrek behar bezalako kirol instalazioa izateko garaia. Datorren Udatik aurrera prest egongo da Mintxetako kirol instalazioaren lehen fasea. Kirolari onak ateratzeko ezinbestekoa da non entrenatu izatea. Elgoibarko hainbat korrikalari eta atletarentzako San Rokeko "pista beltzeko" ekinaldiak iraganeko pasadizo besterik ez dira izango. Baina hori baino lehenago Juan Mugerza Memorialak Mintxetako kirol instalazioa estreinatzeko aukera izango du igandea honetan.



Errekasto baten ildoak eta baserrietarako bidea aldatu dira kirol-zelaia egiteko

**M**intxetako kirol instalazioak Elgoibarren buru-tzen den hainbat kirol ihardueraren bilgune izan nahi du. Lerun futbol zelaia poligono

industrial bihurtuko da eta beraz, Elgoibar Kirol Elkartea (C.D. ELGOIBAR) futbol zelai berri baten premian dago. Gainera jakina da orain arte atletismoan burubelarri aritu diren kirolarien egoera: entrenamenduetarako azpiegiturarik ez izatean, San Rokeko "pista beltzean" entrenatu behar izan dute urtetan.

Helburua Mintxetako kirol instalazioen esplotazio ahalik eta funtzional eta arrazionalena egitea da. Horregatik, kirol federatuaz gain, kirol ez aratuak ere izango du kabida.

## Kirol instalazioari buruzko zenbait datu:

<b>AZALERA</b> .....	47.000 m.2
Luzera.....	510 m.
Zabalera .....	120 m.
<b>KAPAZITATEA</b>	
Armaila estaliak .....	1.500 ikusle
Aldamenetan .....	1.500 ikusle
<b>OBRAK</b>	
Obren hasiera.....	1992ko urria
Obren bukaera data.....	1993ko uztaila
<b>AURREKONTU OSOA</b> .....	435.600.000 pta.
Orain arte gastatutakoa .....	160 milioi pta.

**Atletismoko pista berriak sei kale eta 400 metrotako luzera izango ditu.**

**ANCHUSTEGUI S<sub>a</sub>**  
**ZERAMIKAK**

Erakusketa eta bulegoa:  
 Antonio Arrillaga, 6-8  
 behea  
 83 Postakutxa  
 Tel. 74 33 44 - 74 06 92  
 Fax 74 37 11

Biltegia:  
 Arregitorre, 10 - 14 behe  
 Tel. 74 20 38 - 74 23 71  
 20870 - ELGOIBAR  
 Gipuzkoa

**URZELAI**  
 ELEKTRIZITATEA-ARGIGINTZA

Santa Ana, 12-14 - Tel. 74 13 76 Elgoibar

## Guztiontzat erabilgarri


Mintxetako kirol instalazioetara edonork izango du sarrera. Futbol zelaia, atletismo pista, gimnasioa edo beste edozein iharduerarako prestatutako instalazioak erabiltzeko aukera izango du herritar orok: "footing" a egiteko, pasiatzeko....

Halaber, herriko beste kirol elkarte eta taldeek, txirrindulariek, eskubaloikoek, triatletek... instalazioetan entrenatu zein jokatzeko aukera izango dute.

Proiektua egina egon arren, momentuz, zenbait puntu lotugabe dago. Oraindik ez da ezagutzera eman zenbat per-tsona kontratatuko den Mintxetako kirol instalazioen mantenu-rako, eta gestioa pribatua ala publikoa izango den ere zehaztu gabe dago. Halere, gauza bat argi dute Udaletxekoek: funtzionaltasun eta arrazionaltasun hori kontutan izanda, mantenua eta per-tsonal gastuak txiki-ekin izaten saiatuko direla, alegia.

### Belar sintetikoak

Futbol zelaiak belar ez naturala izatearen arrazoia bikoitza da: batetik, kirol talde ezberdinek ordu gehiagoz erabil dezakete zelaiak eta bestetik, belar



- 1-Sarrera Nagusia
- 2-Sarrera kontrola eta takila
- 3-Autobusen aparkalekua
- 4-Kotxe eta motorren aparkalekua
- 5-Atletismo pista
- 6-Futbol zelaia
- 7-Armaila estalia
- 8-Aldagelak
- 9-Biltegia, taberna eta komunak.

mota honen mantenua errazagoa eta merkeagoa da. Halere, belarra erregatu egin behar da eta harea ere nibelatu lantzean behin.

Futbol zelaia eta atletismoko pistaren arteko zonaldeatariko bat entrenamenduak eta beroketa ariketak egiteko izango da. Beste zonalde hutsa, berriz, altura jauzia eta pertika praktikatzeko erabiliko da. Luzera jauziak ere izango du presentzia, futbol zelaiaren alboko tartearako erabiliko dira, hain zuzen.

**Mintxeta, kirolaren kalitatearen aldeko apustua da, betiko kirol-militantismoa baztertu nahian.**

Bestelako lokal eta gelarik egokitzeko asmoa ere badute. Armailen azpian geldituko den espazio hutsan, gimnasioa, kirol materialarentzako biltegia, taberna, komunak eta agian, Elgoibar Kirol Elkarteari emango zaion lokala eraikiko dira. Arbitroek beraien gela izango dute eta, honez gain, bulegoa, botikina eta biltegi bat ere egongo da.

Proiektua, beraz, mar-txan dago eta bertara urreratuz gero edonork ikus dezake.

**GARAY**

**HARATEGA**  
**URDAITEGIA**

San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

**DEKORAZIOA**

**PROIEKTUAK**  
**ERREFORMAK**  
**ALTZARIAK**  
**OPARI GALIAK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

**PUB**

**elgoibar**



# Botikak ala sendabelarrak

**Gizakiaren izateak gaixotasuna darama berarekin batera; horregatik betidanik bilatu izan da gaitz fisikoentzat erremedioa, naturak gure eskuetan jartzen dituen gaitetan.**



**Terapia naturalago eta ez hain erasokorren alde, gero eta jende gehiago dago azkenaldi honetan. Datu estatistikoek frogatzen dute gero eta gehiago direla gaixotasun larriak eta, gainera, gero eta adin gazteagoetan agertzen direla.**

**G**iza bizitzak bilakaera etengabe eta astiroan darrai; gaixotasunaren kasuan, bere jatorriaren azterkerarik gabeko tratamendu experimental eta enpirikotik, sintomak ezagutuz eta jatorria bilatuz, tratamendu etiologiko bat jartzera iritsi gara. Horrela sortzen da sendagilearen irudia.

Hasiera batean gizakiak belarrak zituen bere gaitzen sendagai gisa eta gaur egun ere ez ditu horiek baztertuta. Areago, esango nuke gehiago ezagutzera, aztertzera eta egokitzera eramán duela denborak, bere eragin mesedegarriak indartuz eta gaur egun "medikamentu" edo "farmazia

produktu" izenez ezagutzen ditugunen itxura emanaz: penizilina, digoxina, zekale adartxotik eratorriak eta abar.

Argi dago, bada, gaur eguneko medizina eta medikamentuek naturan dutela oinarria eta sendagilearengan jakintza eta terapia egokia. Beraz, **BAI MEDIKAMENTU**EL.

**Javier Agirrebeña**  
Medikua  
Erredakzioan Itzulia

**Z**enbaitzuek, gainera, sistema immunologikoa ahultzearen arrazoi gisa, politika eta gizarte antolamendua salatzen dute. Izan ere, giza gorpu-tza era guztietako toxinaz betetzen ari da, maila guztietan.

**EKOLOGIA:** Kutsadura, depredazioa eta suntsiketaz gain, pestizida, intsektikari, nitrato, belarrilkari, anabolizante eta antzeko produktu kimikoen erabilera dira aipagarri arlo honetan.

**ELIKAGAIETAN:** Kolorante, kontserbagai, estabilizante eta abarren erabilera.

**URETAN:** Produktu kimikoen bidezko depuraztea, euri azidoa eta abar.

Bizileku ezegokiak, jazki akrilikoen, ingurugiroak, neurrigabeko lehiak, prisak, bizitza egonkorrak... eragin handia dute gure osasunean.

Aipatu diren arrazoiak oso larriak dira eta nahi eta nahi ez sartuta gauden kate horretatik sufrimenduz, suntsiketaz eta, txarrean, geure bizitzaz ordainduz aterako gara. Bide horretatik goaz.

Izan ere, giza gorputzak

bere mugak eta tolerantzia maila du. Gero eta gehiago dira hartzen ditugun sustantzia kaltegarriak eta izakera ahuleneoak dira egoera hau lehenago pairatzen dutenak.

Osasun belarrak eraginkorrek dira gaixotasun askoren aurka, toxinak eliminatu eta organismoa garbitzen eta orekatzen baitute. Zenbait landarek gaitasun antibiriko eta antibiotikoak dituzte eta gorputza bere osasunera ekartzeko indarra, kalterik egin gabe.

Gibelean, hesteetan, giltzurrunean, digestio aparatuan eta odolbideetan izan dezake eraginik landarebidezko desintoxikazioak. Landare asko dago horretarako:

Hesteen garbiletarako, zahia, malba, polipodioa... Gibelaren garbiletarako, alkatxofa, errefau beltza, gardabera, ormabelarra, olibondoa, erromeroa, menda... Giltzurrun garbiletarako, aza, arto-estigmak, porrua, kipula, urkia, kinarra, kereka, azeri-buztana, askia, otea... Azalerako, Lapabelarra, borraia, kamamila, untza,... Biriketarako, zainbelarra, origanoa, basa pinua, poligala, eukalitia.. Odolbideetarako, arantzuria, aloka... Emozio-egoera ezkorretarako, Bachen lore-erremedioak.

Hain da zabala gaia, ezin da funtsez azaldu lerro gutxitan. Beraz, irekia gelditzen da kapitulu hau.

**Jose Antonio Zuazubiskar**  
Erredakzioan itzulia





## Botikak ala sendabelarrak



**Isabel Ansola,  
22 urte. Ikaslea.**

Ez naban hartuko ez bata ez bestea. Gaisorik egongo banintz nahiago sendabelarrak, baina botikak ere batzutan behar izaten dira. Enplastuak eta horrelakoak egin izan ditut.



**Rosa Alamino  
24 urte, Ikaslea**

Normalean medikuarengana joaten naiz. Baina askotan katarro eta horrelakoetan belarrak eta gauza naturalak erabiltzen ditut. Belarrak nahiago, naturalagoak direlako.



**Maria Torres,  
63 urte. Etxekoandrea**

Ni beti medikuarengana joaten naiz. Ez dut kuran deru eta sasisendagile horiengan sinisten. Medikarengan konfidantza handia daukat.



**Jose Antonio Murua  
35 urte. Ajustatzailea**

Gaixorik jartzen naizenean, eskura daukadanari heltzen diot. Normalean, botikak izaten dira. Medizina naturalaren aldekoa naiz, baina dudarik ez dut izaten aspirina hartu behar badut.



**Jose Migel Escudero,  
35 urte. Arotza**

Medizina normala. Ez ditut inoiz sendabelarrak erabiltzen. Seguruenez tradizioz ez dudalako izango da. Gainera, nik sekulako osasuna daukat.



**Garbiñe Uriguen  
61 urte. Etxekoandrea**

Ni, botikena baino gehiago, belarren aldekoa naiz. Botikak ez jataz batere gustatzen. Ahal den gutxien hartu behar da botikia.

**Kopilan** FOTOKOPIAK  
PLANOAK  
ENKUADERNAKETAK

Ibaiarte Polig. Industrial, A-6 Tel. 74 35 51 - Fax publikoa 74 00 12

**Richi Fleapaindegia** 

**KIROMASIA**

- GERRIKO MINAK - ERREUMAK
- ZAITIRATUAK - ARAZO MUSKULARRAK

Errosario 6 - 1 Tel. 74 30 11



**OSTEGUNA, 14:**  
San Anton jaien egitaraua "Elgoibarko Izarra" Idaz-Lehiaketan sari banaketarekin hasi zen. Guztira 280 lagunek hartu zuen parte eta irabazleak honoko hauek izan ziren: Prosa lehiaketan, A mailan,

Ane Guillo, B mailan, Luzia Zubiaurre eta D mailan, Alaitz Vives. Etxegiña bertso lehiaketan, berriz, A mailan, Unai Arrieta, B mailan, Lore Agirreazaldegia eta azkenik, D mailan, Irati Agirreazaldegia.

**OSTIRALA 15 GAUEZ:**

Ikastolako frontoia jendez gainezka eta apustuak bero-bero, aparteko giroa jarri zuten **San Anton II. Esku Pilota Txapelketa** finalean. Jubeniletan, Otaegi eta Urretabizkaia, Berraondo eta Idiakez bikotearen aurka 22-19 irabazi zuten. Afizionatu mailan Nagore eta Oliden bikotearentzako izan zen garaipena 22-16 Ortiz eta Lasa II.aren aurka.



AZKUE



**OSTIRALA, 15 ARRATSALDEZ:**

"Adagio Violentissimo" musika, umore eta intrigaz beteriko antzezlan da. Schultz musifoniako lau langileak, kontzertuak dirauen bitartean, zuzendaria hiltzen saiatzen dira. Bakoitzak hilketak burutzeko arrazoi bat du, baina zuzendaria hilik agertzen denean...

**LARUNBATA 16 GAUEZ:**

**E.H. Sukarra** talde eibartarrarekin batera, **Pneuma** eta **Nahitanahiez** etxeoak, Maalako parkean aritu ziren larunbat gauean. Oraingoan ere, horrelako jaialdiak egiteko leku aproposa dela erakutsi ziguten bertara bildutako jendetzak eta giroak.



**IDARRAGA**  
KAFEAK

Eguneroko errealdia  
San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39

**ELDENNA**

Ikusgaitasunak  
Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-L. Tel: 74 41 899. ELGOIBAR

**Publizitatea**

**74 23 83**



## IGANDEA 17 GOIZEZ:

Kalitate handiko **artisans lanak** ikusteko aukera izan zen Foruen enparan-tzan. Eguraldi ona eta lagun giro aparta izan zen plaza aldean. Denetarik zegoen salgai eta ikusgai: txontxongiloak, makila artistikoak, zeramika, narruzko objektuak...



## IGANDEA 17 GAUEZ:

### Astondoa piroteknia

etxekeok argi eta zarataz bete zuten igande gaua. 10 bat minutuz aho zabalik utzi gintuzten suzko erroberak ikusten egon ginenok. Ia hurrengoan gehiago irauten duten !

## ASTELEHENA 18, GOIZEZ:

Musika izan zen protagonista. **Ertzantzaren bandak**, herriko kaleak zeharkatu ondoren kontzertu bat eskeini zuten Herriko Antzokian. Oraingoan ere, punta puntako musikariak dituela argi utzi zuten banda honek.



## IGANDEA 17 ETA ASTELEHENA 18, ARRATSALDEZ:

Batzuek trenean beste batzuek Kart autoetan, Elgoibarko haurrek izan zuten non dibertitu.



## IGANDEA 17, GAUEZ:

Plaza Handia betetzea lortu zuten **Tapia eta Leturiak**, giroa alaitzeko trikitixa baino hoberik ez dagoela erakutsiz. Hasieran haurrek bakarrik baina bukaeran nagusiek ere dantzan bukatu zuten.



## Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



## RITZ BIZKAR ARDOAK

ARDO ETA PATARRA

PATATA SALMENTA

Errosario 18  
Tel. 74 02 37

**"Kros egunean eguraldi ona egitea eskatzen dut."**

**Elgoibarren jaio zen duela 71 urte. Sigman eta Eibarren aritu da lanean. Gaur egun jubilatua dago. Korrikarako grina betidanik izan duen arren, soldaduzkan hasi zen**

**korrikalari federatu bezala lasterketetan parte hartzen, eta osasuna duen bitartean korrika egiten ihardungo duela baieztatu digu.**

**Noiz eta nola, eta zergatik hasi zinen korrika egiten?**

Beti eduki dut deporterako eta korrikarako zaletasuna, gaztetik. Hemen gazte denboran, gerra aurretik, egiten zen herrian eta noizean behin ibiltzen ginen korrika hiru edo lau lagun elgoibartar. Sallobenteko jaie-tan karrera ipintzen zeben eta asko ibili gabe, urten eta zelan edo hala heltzen ginen helmugara. Baina gero geria etorri zen. Gerora, soldadutzan hasi nintzen korrika egiten. Donstiako Krossean parte hartu neban. Baina ni hobeto ibiltzen naiz pistan edo motzean. Soldadutzan denera apuntatzen nintzen ahalik hobetoen igarotzearren.

**Entrenamenduei dagokienez, dieta berezirik jarraitzen al duzu? Zenbat orduz enentrenatzen duzu eguneroko?**

Ez dot dietarik jarraitzen; hemen datorrena jan behar da behin nire edadean; ez dot kontrolatzen. Entrenamendu orduak aldatu egiten dira. Beti ere, gutxi gora behera ia ordu bi goizean.



**"Elgoibarren afiziua egin eta sortu leike, badago eta."**

**Nola ikusten duzu Elgoibarren korrikarako zaletasuna?**

Bai, ibiltzen dira bai, baina ez dago lekurik. Gazteek Mintxetako pista amaitzen denean edukiko dute. Elgoibarren egin eta sortu leike poliki-poliki afiziua, badago eta. Gazteen afizioa ere garatzeko pista behar da.

**Zergatik aldatu dute aurten Kross Mugerzaren ibilbidea?**

Orain dela urte bi

federazioak esan zaban "hemendik aurrera ez dugu lagako errepidean korrika egiten, gaizki ibiltzen dira eta". Nik ulertzen dot salkarientzat problema bat izatea, zeren orain belarra, biguna, eta gero errepidea gogorra. Eta klaro, punta-pari txikiak ipinita eta hala eta guztiz ere, gaizki. Bi urtetako plazoa eman ziguten. Eskerrak oain Mintxeta dagoela. Aurten hor izango da.

Niretzat Mintxeta aproposa da horretarako.

**Zenbat aldiz parte hartu duzu Kross Mugerzan?**

Soldadutzan eskatu naban behin egiteko, baina ez naban urten. Soldadutzan komeni zalako egiten genuen baina behin ere ez da izan neretzat eta inoiz ez dot Juan Mugerzan parte hartu aldatz gorak ez direlako neretzat egokiak. Aurten ez dot parte hartu behar beteranuen mailarik ez dagoelako, baina Kross Mugerzan egualdi ona egitea eskatzen dot.

**Euskadi mailan korrikalarien artean zein dozu gogokoan?**

Fondisten artean Garin, Apaolaza eta Sarriegi maila nagusian. Maiztegi hemengo korrikalaria poliki ibiltzen da. Gero, 2.mailan badaukagu elgoibartar bat, Revuelta. Urrutira heldu leike.

**Etorkizunera begira, zein asmo daukazu?**

Orain ekainaren azken aldera Burgosen dagoen txapelketan parte hartzeko asmoa daukat.

**Maite Iriondo**



## Jose Mari Ondarza



-Bidaiatzen ezagutu dozun leku ederrena? Norberak bere buru barrura egiten dabana da bidairik politena.

-Nora egin zendun azkenengo bidaia? Emakume baten bihotzera.

-Norz joango zinateke gustora? Sexua izeneko herrira.

-Bizitzeko leku bat? Bertara heltzea ezinezkoa dan tokia.

-Kirola gustatzen al jatzu? Bihotza eta arimaren arteko mugimendua gustatzen jata: maitasuna.

-Euskal Herriko mendi politena? Euskal Herria dana da mendia.

-Karakate ala Kalamua? Zeruaren erdia.

-Eguzkia ala ilargia? Izarrak.

-Ipar ala hego haizea? Hego haizea, dudaripe.

-Diskoteka ala taberna? Arbolapea.

-Irakurri ala idatzi? Amets egin.

-Bigarren liburua idazteko asmorik? Auskalo. Hori denborak esango dau.

-Urteko jairik onena? Bukatzen ez dena.

-Loteria tokatuz gero zer? Diruak ez dauka suerterik.

-Eguna ala gaba? Gaba egunian eta eguna gabian.

-Musika kontuan? Haizea eta uraren soinua bezelakorik ez dago ezer.

-Zein gonbidatuko zenduke afaltzera? Lagun bat.

-Eta zer afalduko zenduke? Lentejak...eta Elvis Presley-ren musika ipintzeko esango nioke kamareruari.

Aitor Zabaleta

## BERTSOTAN

JUAN MUGERZA KROSA

Doinua: Betroiarena

Beltzak eta zuriak denak nahastuta zein lehenago iritsi a zer burruka.

Egoten den giroak harriturik nauka tortilei laguntzeko "botatik" zurruta.

Batzuk zahartuta besteen debuta jendea ujuka txalo eta aupa.

Animatu zaitezte merezi du-ta!

Imanol Larrañaga

# LAB

langile abertzaleen batzordeak

Elgoibar San Inazio 1 tel. 74 38 86  
Eibar: Bidebarrieta 24. Tel. 11 21 99

## ITZALA Edergintza




- Aurpegi tratamenduak
- Gorputz tratamenduak
- Masaia
- Sauna
- Solariuma


San Frantzisko, 49 - 1 esk. Tel. 74 43 03

## 200, 400 eta 1.500 metrotan elgoibartarrak txapeldun

Pasa den larunbata eta igandean Gipuzkoako atletismo txapelketak egin ziren Anoetako belodromoan. Agurtzane Arriola 22 urteko elgoibartarrak 200 eta 400 metrotan urrezko domina irabazi zuen. Carmen Perea (17 urte) ere, lehenengo bukatu zituen 1.500 metrotako karrera.



**Agurtzane Arriola.**  
400 m. .... 59,17  
200 m. .... 26,48



**Carmen Perea**  
1.500 .....4 minutu 58 segundu

## Santi Maiztegi: "Olinpiadan korritzea baino, nahiago dut Memorial Mugerzan irabaztea"

Behartuta hasi zela korrika egiten esan daiteke. Eskolako maisuak Memorial Mugerzan korritzeko atletismoko ekipoa egin behar zela eta inork nahi ez zuenez, ia behartuta, Santi Maiztegi ekipoan sartu zuten. *"Hasieran, bai, behartuta, baina gero gustora. Lenguajeko klasea ez egitearren entrenatzera joaten ginen"*. Lehendabizikoz korritu zuenean txiripaz izan zen. Ekipoiko lehen bost onenak aukeratzen zituzten krosean korritzeko eta Santi beti seigarren gelditzen zen. Lagun bat gaisotu eta haren ordezkorritzera joan behar zuela esan ziotenean gogo handirik gabe hartu zuen notizia. *"Beti botekin eta praka luzeekin entrenatzen gendun, eta egun hartan, zapatilekin itxura antzean joan eta, kriston aldean hi! Ekipoiko bigarren egin nuen entrenamenduan, eta Krosean, konturatu gabe, bosgarren gelditu nintzen"*.

Ez daki zenbat Memorial Mugerza korritu dituen, bost bat direla uste du. Juniorretan 15.postua lortu izan du eta seniorretan 18.postua. Janariari dagokionez ez du zainketa berezirik egiten baina entrenamenduak oso gogorak direla esaten digu. *"Urte guztian entrenatzen dut. Jendeak pentsatzen du nik karerra hau bakarrik preparatzen dudala, baina setienbrean hasi, eta abuztuan erdirarte entrenatzen dut"*. Egunero batzabeste, bi orduz entrenatzen du; aste batzutan



tan 140 kilometro egiten ditu, eta denboraldia aurrera doan heinean kilometrotan jeitsi arren, 90 bat kilometro astean. Intentsidatea asko gogortzen da.

Elgoibarren irabazteak badu horrelako gauza berezi bat Santi Maiztegiarentzat. *"Beste edozein karreratan baino gehiago nahiko nuke egitea, baina horregatik ez daukat erresponzabilitate handiagoa. Edozein atletarentzat retoa Olinpiadan korritzea izaten da, baina nik nahiago nuke Olinpiada batean korritzea baino Memorial Mugerzan irabaztea"*

Zer dela eta ez dagoen Ego-Tokiko ekipoan galdetu diogu eta Santik honela azaltzen du istorioa: *"Juniorretan azkenengo urtean, lehenengoak atera gendun ekipoka, eta Manresara joan behar zen. Baina horrela esan ziguten: "aurten ezin leike joan eztaolako dirurik". Horrela bata futbitora, besteak zikloturismora, bakarrik gelditu ginen ni eta Gurrutxaga beteranoa. Karrera batera joan eta beti bakarrik. Eta mejoatzen joateko entrenamendu gogorra behar zen. Horrela beti Zumarragakoekin topo egiten naban eta azkenean haien ekipora joan nintzen"*.




# Hiru elgoibartar aurtengo Mugerza Memorialean

Mugerza Memorialak 50.urteurrena betetzen du. Aurtengoan, lehenengo aldiz, Mintxetan egingo da Krosa. Bertan, hiru elgoibartarrek hartuko dute parte: bik Juniorretan eta Santi Maiztegi seniorretan. Gainera, Mintxetan Krosaren ibilbide ia osoa ikusi ahal izango dugu.

Azken urteotan Memorialak izan duen maila altuari eusten saiatu dira Ego-Tokiko antolatzailleak eta horregatik aurtan ere, ez dute hutsegingo atleta keniar, etiope eta portugaldarrek. Eamonn Martin atleta ingelesa ere, hor ibiliko da afrikarrekin lehian. Guztira 200 bat partaide izango direla kalkulatu dute Ego-Tokiko ardura-dunek.

## Juniorrak

Elgoibartarrok izango dugu emoziorik junior lasterketatik hasita, bi elgoibartarrek, Alberto Revuelta eta Javi Santamariak korrituko baitute.



MAILAK	IBILBIDEA	DISTANTZIA	ORDUA
Juniorrak	Buelta txiki 1, 3 buelta haundi	7.250 m.	11
Senior emakumezkoak	Buelta txiki 1, 2 buelta haundi	5.150 m.	11,35
Senior gizonezkoak	2 buelta txiki, 4 buelta haundi	10.300 m.	12,15

Ego-Tokikoek esan digutenez, podiumean egon daiteke elgoibartarrik, Alberto Revuelta oso ondo baitabil.

## Emakumezkoak

Emakumezkoen karreran parte hartuko dutenak, Ana Moreira, Albertina Machado eta Fernanda Marques portugaldarrek, eta Carmen Fuentes eta Ana Isabel Alonso espainiarrak izango dira, besteak beste. Helen

Kimayo, pasa den urteko irabazlea ere bertan izango da, aurtengo faboritoa Luchi Yischak etiopiarra den arren.

## Nagusien karrera

Baina guztion arreta erakarriko duen karrera dudarik gabe Nagusien kategoriakoa izango da. Martin Fiz eta Diego Garcia dira euskaldunen artean karrera hobereana egin dezaketanak, eta elgoibartarrei dagokiene-

an, Santi Maiztegi izango da ordezkari bakarra.

Krosleri entzutetsuenak etorriko dira gure herrira, tartean, Gebrasilase, Bayissa, Kelile, Kirui, Kororia, Castro anaiak... 13 milioitako aurrekontuaren zati handiena, ordea, sarreren bidez finantzatu da. Aurtengo prezioa pasa den urtekoa bezala, 700 pezeta ingurukoa izango da.

foto | azkue

ANIVERSARIO  
**20**  
1973 - 1993  
URTEURRENA

San Bartolome 26, Tel. 74 08 48

**OINETAKOAK**

San Frantzisko, 34 Tel. 74 02 35

# BIAR-DANA, Elgoibarko elkarterik zaharrena

Biar-Dana Elgoibarren sortu zen lehendabiziko elkarte da, 1950ean hain zuzen. Lehen direktiba sei pertsonen osatzen zuten: Eulogio Estarta, Eduardo Iriondo, Jose Maria de la Cruz, Antonio Usabiaga, Jose Maria Etxaniz eta Juan Bautista Juanenak. Izen berezia jarri zioten: Biar-Dana. Hitzek dioten bezala elkarte bera zen "biar zana" edo "nahi zana".

Gainera betidaniko afizioa ere bazuten: musika. Eta honela, beraien ustez, musikak behar zuena sortu zuten. Ordudanik aldaketa ugari jasan ditu Biar-Dana elkarteak. 1969. urtean hasierako lokaletik alde egiteko agindua jaso zuten 5000 pezetatako zigorpean esandako epearen barruan egiten ez bazuten. Honela gaur egun duten lokala erosi

eta han ezarri zuten elkartearen egoitza.

Biar-Dana elkarteak badu oraindik ere lege edo arau berezirik emakumeei dagokienean. Ostiral eta larunbata dira astean zehar emakumeak bertara sar daitezkeen egun bakarrak, eta urtean zehar jai egunak kontsideratzen diren egunetan soilik dute sarrera baimendua. Gainera, ostiral eta larunbatean sartzeare-



Jose Zabala eta Fernando Aiesta, Biar-Danako bi kide.

na nahiko berria da, duela hiruzpalau urtekoa. Inork ez daki nolaz emakumee-kiko zorrotasun hau, baina aspaldiko legea omen da "Emakumeak etorri leikez jatera, baina eztauke sukaldera sartzerik".

Bazkide izateko ere baldintza bat bete behar da: gutxieneko adina hogeitabi urtekoa da.

Azken urteotan Biar-Danakoek ez dute musika arloan ekintza berezirik antolatzerik izan, diruz urri baitabilta, baina garai batean leku ezberdinetako koro edo abesbatzak ekartzen zituzten herrira. Halere, urtero eta inoiz kale egin gabe, Kros Mugerza memorialera datozen ordezkari guztiak bertara etortzen dira afaltzera. Sukaldari-tza lehiaketetan ere ibili dira baina beraiek dioten bezala "ez dugu inoiz ezer atara".

## TXERRIKUMEA ERRETA

### OSAGAIK:

Txerrikumea, olio, berakatza, eta ardo zuria.

### NOLA EGIN:

Txerrikumeari aurretik gatza ematen zaio. Ondoren olio piska batekin txerriku-

mea busti eta labea berotzen dagoela sartu. Berakatza ematen zaio eta txerrikumearen barrenera ardo zuria bota. Noizean behin begiratu. Sekretua asko zaintzea da.

## FITXA TEKNIKOA

- Sorrera urtea: 1950
- Bazkide kopurua: 119
- Presidentea: Fernando Aiesta Albizu
- Urteko kuota: 7.000 pezeta
- Berezitasuna: Musika
- Helbidea: Ubitarte 1-3

**HARPIDETZAK**  
74 16 26

**Sikutei**  
ALUMINIOZKO  
LEIHO TRINKOAK  
Arrilaga 4 Tel. 74 25 85

**JOSE ANGEL ZABALA**  
**URDAITEGIA**  
Berezitasunak:  
Bakilaua  
Txerrikiak  
Merkatu Plaza 33-34

**TRUK**  
**KAFETEGIA**  
San Frantzisko 26, behea  
Tel: 74.26.21

# Krossari buruzko 28 argazki



Mugerza Memorialak 50 urte betetzen dituela eta, Ongarri argazki elkarteak Krosa hasi zeneko urtetik pasa den urterarte argazki erakusketa antolatu du. Krosarekin lotutako hainbat momentu, leku eta pertsonaia agertzen direneko argazkiak dira. Lan guztien autoretza, Julian Azkue aita-semeena da.

Krosaren historian zehar egin izan diren zirkuito ezberdinak ere ezagutu daitezke erakusgai dauden argazkien bidez. Krosaren izena daraman korrikalariak irabazitako zenbait kopa ere ikus daitezke, tartean, Maria Kristina erreginak 1917. urtean emandakoa, 5.000 metrotan Espainiako txapeldun iza-teagatik irabazitakoa.

Garai bateko Krosaren irabazleak ere ezagutu ahal izango ditugu, paperean besterik ez bada ere.

Mariano Haro, Abebe Bikila, Joakin Eskudero elgoibartarra, Simon Aldazabal eta Franzisko Irizar euskaldunak, Lackie Stewart eskoziarra...

Erakusketaren gauza bitxi edo bereziena, ordea, sei telebista aparailuk erakusten duten edizio ezberdinen arteko konparaketa da. Azkenengo bost urteetan egin diren Krosak, guztiak aldi berean, eskeintzen dituzte telebista aparailuek.


Erakusketaren osagarri modura, Mugerza Memorialean parte hartu duten korrikalarien argazki zein trofeoak erakusgai jarri dira honako lekuotan: Iriondo Kirolak, Astigarraga, Muxi Kirolak eta Pitxintxun. Erakusketa zabalik egongo da hilaren 31a arte.

## Perretxikuak gertuagotik ezagutzeko aukera

Zigiluek hainbat gai ezagutzeko aukera ematen dute. Karate elkarteak perretxikuen inguruan duen kezka dela eta, aurtengorako, perretxikuak gai modura hartuta, zigilu bilduma ezberdinak bildu nahi izan ditu. Hamairu bilduma pribatuk osatzen dute hilaren 24a arte Kultur Etxean ikusgai egongo den erakusketa. Sebilla eta Coruña bildumekin batera, Donostia, Bilbo, Gasteiz, Irun, Ibarra eta Getxotik ekarri dituzte zigilu kolekzioak.

Zigiluekin batera perretxikuei buruzko informazio mordo jaso daiteke erakusketa honetan eta bilduma guztiak 90 bitrina edo erakustokitan bilduta daude.

Zigiluak ikusteaz gain, erosteko aukera ere izango du bertara hurbiltzen denak. Erosi aurretik, zigiluek postaren marka izan behar dute, eta, horretarako, postaren marka jartzen diharduen pertsona bat dago.



## PAGOAGA, S.A. Iturgindegia

ITURGINTZA LANAK, BEROGAILUAK, AIRE ETA IGELTSARITZA INSTALAKUNTZAK

**BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:**  
San Antolin kalea, 13  
Tel: 74 02 79- 74 05 12  
Fax: 74 35 65

**ERAKUSKETA:**  
Pedro M. Urruzuno kalea, 8  
Tel. 74 38 44  
20 870 ELGOIBAR

## MUXI kirolak

Aukera haundia  
kirolarien zerbitzuan

Antonio Arrillaga 14 behea  
Tel. 74 01 80

## MATE

GOZOTEGIA  
IZOZKIAK  
Berton eginak

San Frantzisko, 15  
Tel. 74 16 88





**23** *Larunbata*

**KROSAREN AURKEZPENA**  
Arratsaldeko 7.30etan  
Udaletxeko Batzar Aretoan  
Juan Mugerza "L Nazioarteko  
Krosaren korrikalari eta  
ordezkariei **Ongietorri  
Ofiziala**. Ekitaldian, Juan  
Jose Astigarragaren emazteari  
Urrezko garaikurra eta lore  
sorta emango zaio, senarra  
zenaren omenez.

**ZINEA**  
"Soldado Universal" Herriko  
Antzokian, arratsaldeko  
7.30etan.

**24** *Igandea*

**KROSA**  
Goizeko 11etan hasita, Ego-  
Tokik antolatutako **Juan  
Mugerza "L. Nazioarteko  
Krosa"** Mintxetan.

**ZINEA**  
"Soldado Universal" Herriko  
Antzokian arratsaldeko  
4.30etan eta 7.30etan.

**ERAKUSKETA**  
Perretxikuei buruzko zigilu  
erakusketa ikusteko azken  
eguna.

**25** *Astelehena*

**ZINEA**  
"soldado Universal" Herriko  
Antzokian arratsaldeko  
7.30etan.

**28** *Osteguna:*

**BILERA**  
Gipuzkoako Merkatar  
Elkartearen bilera Kultur  
Etxean arratsaldeko 8etan

**29** *Ostirala*

**JUAN BOSKO DEUNAREN JAIA  
LANBIDE HEZIKARAKO  
INSTITUTUAN**  
- Goizeko 8.30etan, **KROS  
TXAPELKETA**.  
Korrikalariak Lanbide  
Heziketa Institutua-San  
Antolin ibilbidea egin  
beharko dute.  
- Goizeko 9etan, San Rokeko

aldapan **GOTI-BEHERAK**.  
- Goizeko 10etan,  
**MOUNTAIN-BYKE**  
ihardunaldia. Ibilbidea: LHI-  
LHI.

Ordu berean, **TORTILA  
TXAPELKETA** hasiko da.  
- Goizeko 11etan, **SOKA-  
TIRA ETA ARTO-JOKOA**  
Polikiroldegian.

- Eguerdian, **FUTBITO**  
partidua irakasle eta ikasleen  
artean kiroldegian.  
- Arratsaldeko 2etan **BAZKARIA**.

- Arratsaldeko 4etan,  
**ANTZERKIA** Herriko  
Antzokian.

- Arratsaldeko 6etan,  
**BERTSO JAIALDIA  
GUASS  
DANTZALEKUAN**.

**Bertsolariak: Unai Iturriaga,  
Igor Elortza, Estitxu  
Arozena, Jesus M. Irazu  
Gai Jartzaile: Aitor  
Sarasua**.

- Gaueko 11etatik aurrera  
**DANTZALDIA GUASS  
DANTZALEKUAN**.  
Sarrerako dirua ikas-  
bidaiarako izango da.



**HARPIDETZA TXARTELA**

elgoi**BARREN** herri astekaria, **DOHAINIK**, astero  
buzoian jaso nahi baduzu bete harpidedun txartela eta  
elgoi**BARREN**era bidali edo deitu telefonoz.

IZENA:.....

ABIZENAK:.....

HELBIDEA:.....

HERRIA:.....

TEL:.....

elgoi**BARREN** astekaria, Ubitarte 4 behea. (20.870) Elgoibar  
TEL: 74 16 26

**TXANDAK**

**FARMAZIAK:**

- 23, larunbata: **BIDASOLO**
- 24, Igandea: **BIDASOLO**
- 25, Astelehena: **YUDEGO**
- 26, Asteartea: **YUDEGO**
- 27, asteazkena: **YUDEGO**
- 28, osteguna: **YUDEGO**
- 29, ostirala: **ORMAZABAL**

**OKINDEGIAK:**

- 24, igandea: **FOTERO**



Etxebizitzak

Logelak alokatzen ditugu  
Pedro Muguruza 19an.  
Prezio oso merkeak.  
Tel. 74 23 84

Lana

Tituludun irakasleak  
O.H.O.ko klase partikula-  
rrak ematen ditu.  
Alazne Tel.:74 28 53

"Modulo 3 de Fabricación  
Mecánica" ikasketak amai-  
tuta lan bila nabil.  
Jon Etxabe Tel.: 74 06 19

Aseguru aholkularitzak  
SALEROSLEAK behar  
ditu.  
San Bartolome, 15 behea.  
(San Bartolome eta Erro-  
sario arteko pasalekua)

Salerosketak

Karrerako bizikleta salgai.  
ZEUS. Merke.  
Kaxka: 74 18 57

Bizikleta bat saltzen dut.  
Berri-berria. Haurrentzako  
"Orbea" markako motoreta  
gorria da. Prezioa nego-  
ziazteko.  
Jasone. Tel.: 74 25 36  
Deitu 9etatik 10etara.

Mountain-Bike bat saltzen  
dut. BONTEMPI SIMANO  
500 LX, 48 neurrikoa. Pre-  
zioa negoziatzeko.  
Kaxka. Tel.: 74 18 57

Nintendo Kotsola bat sal-  
tzen dut. AUKERA!!  
Tel: 74 23 27

Bota patin batzuk erosiko  
nituzke. Merke eta egoera  
onean.  
Ainhoa. Tel: 74 02 09

Kontaktuak

Intsumisioari buruzko  
informazioa nahi baduzue,  
idatzi lasai helbide honeta-  
ra:  
**Elgoibarko Talde Anti-  
militarista, 70 Postaku-  
txa, 20.870 Elgoibar.**

Mutil gazte (23 urte) eta  
itxura oneko kuadrilla bat  
gera. Baina, tamalez, neska  
lagunik ez. Momentuz  
lotsaz gaude zitarenbat  
prestatzeko, beraz erabili  
tarte hau gurekin  
harremanetan jartzeko.

Orrialde honetako iragarkiak doan dira.  
Testua idatzi eta bidali elgoiBARREnera.

TESTUA.....  
.....  
.....  
.....  
.....

Ubitarte 4 behea, 20870 Elgoibar tel.: 74 16 26

# Eman urteari hasiera on bat



## S E A T T O L E D O

Hasi urtea SEAT TOLEDO batekin.  
Orain EIBAR MOTOREk

**250.000** PTA.

GEHIAGO EMATEN DIZU  
ZURE KOTXE ZAHARRAGATIK  
SEAT TOLEDO bat erosterakoan.

LEHENENGO URTEAN

**19.900** PTA./HILEAN

ORDAINDUZ FINANTZIA DEZAKEZU.

M A R B E L L A - T E R R A - I B I Z A

Kotxe berriak, matrikulatuak eta estrenatu gabeak PREZIO IKUSGARRIETAN.

**SEAT**

Eibar Motor, S.A. Otaola hiribidea, 17 . Tel. 11 36 42 Eibar